


TOKIKO GIZARTE-HEZKUNTZA MAHAIA



ERMUA

0.- AURKIBIDEA

1.- JUSTIFIKAZIOA	4
2.- TALDE HARTZAILEA	6
3.- HELBURUAK	7
3.1.- HELBURU OROKORRA	7
3.2.- HELBURU ZEHATZAK	7
4.- PROZESUA BIDERATZEN DUTEN PRINZPIOAK	9
5.- PARTE HARTZEN DUTEN AGENTEAK	12
5.1.- ERMUKO UDALA	12
5.1.1.-TOKIKO GARAPENA	13
5.1.2.-KULTURA ZERBITZUAK	15
5.1.3- GIZARTE ZERBITZUAK	16
5.1.4.-EUSKERA	17
5.1.5.-UDALTZAINGOA	18
5.1.6.- INGURUMENA	19
5.1.7.- UDAL KIROL ERAKUNDEA	20
5.2.- HEZKUNTZA AGENTEAK	21
5.2.1.- ADINGABEKOAK	21
5.2.2.-FAMILIAK	21
5.2.3-IKASTETXEAK	22
5.2.4.- BERRITZEGUNEA	22
5.3.- KOMUNITATEKO BESTE AGENTE BATZUK	24

6.- ZERBITZU SORTA – ERREKURTSO GIDA	25
6.1.- TOKIKO GARAPENA	26
6.1.1.- GAITASUN PERTSONAL ETA PROFESIONALAK HOBETZEA	26
6.1.2.- ENPRESA JARDUERA ETA KULTURA EKINTZAILEA SUSTATZEA	31
6.1.3.- LAN MUNDURATZEA	33
6.2.- KULTURA ZERBITZUAK	34
6.2.1.- KULTURA	34
6.2.2.- GAZTEAK	37
6.2.3.- UDAL LIBURUTEGIA	39
6.3.- GIZARTE ZERBITZUAK	44
6.3.1.- FAMILIAK	44
6.3.2.- DROGAZALETASUNAK	46
6.3.3.- ESKOLA ABSENTISMOA	47
6.3.4.- BIZIKIDETZA HOBETZEA	48
6.3.5.- INMIGRAZIOA	50
6.3.6.- BERDINTASUNA	52
6.4.- EUSKARA	55
6.5.- UDALTZAINGOA	58
6.6.- INGURUMENA	59
6.7.- UDAL KIROL ERAKUNDEA	61
 7.- ONDORIOAK	 65

1.- JARDUNALDIAREN JUSTIFIKAZIOA

Eskola zentroetara aurkeztu eta hurbiltzeko urteroko jardunaldi bat antolatzen dugu, udaleko eremu eta sailek egunero egiten duten lana eskoletan hedatzeko.

Azken helburua **Tokiko Gizarte-hezkuntza Mahaia** sortzea da, komunitateko gizarte-hezkuntza agenteek parte har dezaten.

Gure hartzaileak kontuan izan beharreko elementu garrantzitsu bat dira: ikasleak, Ermuko adingabekoak, gure laneko “ohiko bezeroak” hain zuzen.

Egia da gizarte-hezkuntza agenteek udaleko zerbitzuak nolabait ezagutzen dituztela, zenbaitetan harremanetan izan baikara, adingabekoekin lotutako gai zehatzetan koordinatzeko, horien jarraipena egiteko eta lankidetzan aritzeko. Hala ere, baliteke gaur egun Ermuko Udalean dauden zerbitzuak eta horietan lan egiteko modua behar bezala ez ezagutzea, eta ziurrenik eskolako zentroetako profesionalei erabilgarri eta interesgarri izango zaizkie zerbitzu horiek.



Topaketa hau antolatzeko beste arrazoi bat da sektorean lan egiten dugun pertsonen elkar ezagutzea. Izan ere, presentzia fisikoak eta pertsonen aurpegiak ezagutzeak etorkizunerako harremanak bultzatu eta aberasten ditu.

Gure ustez, Ermuko udaleko eskoletan egiten den lana ez da akademikoa soilik, adingabekoen garapena ahalbidetzen duten gaiak azpimarratzen baitituzte, liburuetan agertzen ez diren egunerokotasunen bitartez.

Zalantzarik gabe, profesional talde bakoitzak, zentro bakoitzak, sail bakoitzak... bere ikuspegi eta iritzia du gizarte-hezkuntza eremuaren gainean; dena dela, ziur gaude espazio, mahai edo foro bateratu eta diziiplina anitz bat



sortzean, errealitatea era zabalago eta heterogeneoago batean ikusteko aukera emango digula, eta, beraz, helburu eta erronka berriak ezartzeko baita ere. Era berean, lan bateratua, koordinatua eta adostua da mekanismo bakarra emaitza hobeak lortzeko, indibidualki nahiz zentroetan eta udalerrian bertan, eta hori guztia baliabideak optimizatzeak ematen duen balio erantsiarekin.

2.- TALDE HARTZAILEA

Komunitateko gizarte-hezkuntza prozesuen garapenean diharduten eragileek lana talde zehatz bati zuzentzen zaio: ikasleak. Gure udaleko adingabekoak eta gazteak une oso garrantzitsu eta estrategikoan daude, beren balioak, printzipioak, helburuak, itxaropenak, eta, nola ez, beren nortasuna eta izaera egonkortzen ari baitira.

Aintzat izan behar dugu talde hori barneratze eta ikasketa fase batean dagoela eta gure etorkizun hurbila osatuko duten helduak izango direla eta beren idealak belaunaldi berriei transmititzearen eta hemendik urte gutxi batzuetara gure udalerriari eta gizarteari eustearen arduradun direla.



Hori argi izanik, azpimarratzen dugu hezkuntza prozesuak garrantzitsuak direla pertsona zuzen, kritiko eta probetxuzkoak lortzeko, enpatian, asertibotasunean eta elkarbizitzan oinarritutako udalerri bat izaten lagunduko dutenak.

3.- HELBURUAK

Lan bateratuaren bidez lortu nahi ditugun helburuak azaleratzen ari diren errealitateen arabera ezarriko dira. Ondoren, lortu nahi duguna islatzen duten helburuak aurkezten ditugu, baina izaten ditugun bileretan helburu horiek berrezarri eta adosteko aukera irekita utzita betiere.

3.1.- Helburu orokorra

“Tokiko Gizarte-hezkuntza Mahaia” eratzea, hezkuntza eragileen arteko lan estrategi eta era bateratuak sortzeko, adingabekoen artean bazterkeria prebenitu eta horri aurka egiteko mekanismoak artikulatuz.



3.2.- Helburu zehatzak

- Harremanak eratzea hezkuntza eragile ezberdinen artean hezkuntza komunitate sendoago bat sortzeko, hedapen handiagoko emaitzak sortzen dituzten komunikazio eta partaidetza bide irekien bidez.



- Lan propioa eta globala hobetzea, ezagutza eta esperientziak elkarrekin trukatzuz.

- Espazio formalizatu bat egituratzea, kezkak eta zalantzak biltzeko eta horiei erantzun adostuak aurkitzeko.

- Esku-hartze era berriak diseinatzea lehendik lantzen ari diren beharren inguruan, hezkuntza agente guztien ikuspegiaren bitartez.



- Gizarte-hezkuntza beharrak antzematerakoan egindako ahaleginak baloratzea eta behar horiei egokitutako erantzunak egituratzea.



- Ikasleei eta beren familiei eskolan, familian, komunitatean eta gizartean arrakasta izaten lagunduko dieten gizarte gaitasun asertiboen garapena sustatzea.

- Ikasleek eta familiek hezkuntza prozesu formal eta informalean parte hartzea, beren hezkuntzaren, eskolaren eta ikasketen protagonista izaten lagunduz.

- Partaidetza eta kide izatearen jarrera/gaitasunak areagotzea, ikasleengan nahiz familiengan, eskolari eta hezkuntza komunitateari dagokienez.



4.- PROZESUA BIDERATZEN DUTEN PRINTZPIOAK

Prozesu hau sustatzerakoan, bidea eraikiko duten printzipio batzuk izango ditugu gidari.

➤ **Jabekuntza/protagonismoa:**

Egindako lanak helburu du adingabekoen eta beren familiei tresnak transmititzea, beren bizitzaren protagonista bilakatu daitezen, horrek hezkuntza prozesuetan norberaren eta familien jabekuntza baitakar.



➤ **Osotasuna.**




Gure lanaren altxorra pertsonekin egindako eguneroko lanaren emaitza da. Pertsona horiek garatze prozesuan daude eta kontuan izan beharreko bizitza esfera ezberdinez osatzen dira. Ildo horretatik, ikasleak jada ez dira jarraibide akademikoak hartzen dituen talde bat soilik, eta esentzia fisiko, psikologiko, sentimental, emozional... bihurtu dira. Hori guztia gizakiaren garapenean parte hartzen duten bizitza esferetan gertatzen da: esfera indibiduala, familiarra, taldekoa, komunitatekoa eta soziala. Esfera denak aintzat hartu behar dira, helburua benetan pertsonak prestatzea denean.

➤ **Komunitate ikuspegia.**

Gizarte-hezkuntza lan honetan, hezkuntza agente guztien partaidetza izango da modu bakarra helburu bateratuak lortzeko. Adingabekoek ahobatezko mezu bateratuak jaso behar dituzte harremanetan dituzten hezkuntza agenteen aldetik, kontrakoa transmititzeak ez baitie inolaz ere lagunduko heldutasunera iristeko.



➤ **Koordinazioa**



Esan dugun bezala, ikasleen hezkuntza prozesuetan (formalak nahiz informalak) agente ugariak parte hartzen du. Koordinazioaren bidez soilik lor ditzakegu helburu bateratuak, eta, horretarako, lan ildo adostuak jarraitu behar dira.

➤ **Partaidetza**

Nahiz eta espazio honetan bildutako profesionalak hezkuntza agente izan, argi dago ezberdintasunak daudela gure lana gauzatzeko erabiltzen ditugun metodologietan, tresnetan eta espazioetan. Horrek aberastu egingo ditu gure esku-hartzea eta errealitatea ikusteko modua, eta, horretaz gain, mekanismoak egituratu ahal izango ditugu ikusten ditugun aukeren gainean.



➤ **Lankidetza konpromiso bihurtuta**

Lankidetza harreman iraunkor eta sendoak eraikitzeko ahaleginek adingabekoen ongizatera zuzendutako konpromisoak lortzen lagunduko gaituzte.

➤ **Etorkizuneko erronkak.**

Ermuko Udalak hezkuntza komunitatearentzako dituen zerbitzuen aurkezpena ez da hurbilpen soil, askoz urrunago doa. Lan konpartitu, fidel eta iraunkorra gauzatu nahi dugu, denboraren joanari eta agertzen diren errealitateei egokitzeko gai den lan bateratua hain zuzen.



➤ **Prebentzioa.**



Lan bateratu eta adostu bat martxan jartzean, adingabekoen artean bazterkeria eta arrisku egoerak prebenitzeko elementu aktiboak eskura eduki ahal izango ditugu, era iraunkor eta errealean.

5.- PARTE HARTZEN DUTEN AGENTEAK

Komunitatearen gizarte-hezkuntza espazioa agente formal eta informal ugariz osatzen da, eta horiek helburu komun eta konpartituak dituzte. Zentzu horretan, lan koordinatu, adostua eta konpartitua gauzatuz soilik lor daitezke helburu hobezin, trinko eta egonkorrak, gure hartzailerik diren biztanleei dagokienez. Horregatik, Ermuko Udaleko gizarte-hezkuntza mahaiak eszenatoki horretan zereginen bat duten eragile guztietan jartzen du arreta.

Ondoren, agente horien ezaugarriak azaltzen ditugu, hau da: Ermuko udala, adingabekoak, familiak, ikastetxeak eta Berritzegunea.

5.1.- Ermuko Udala

Ermuko Udala hobekuntza eta berrikuntza prozesuetan sartutako erakundea da. Udaleko erakundeen (formalak nahiz informalak) arteko lokailua da, eta errealitatea ahalik eta erarik hurbilenean ezagutzen saiatzen da, esku hartu beharreko gabezia eta beharrak antzemateko, helburu izanik herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak etengabe hobetzea.

Ermuko udaleko alorrek era koordinatuan eta bateratuan lan egiten duten arren, ezin dugu ahaztu sail bakoitzak bere eskumen zehatzak dituela. Hori argi utzita, gizarte-hezkuntza eremuarekin hurbiletik lotuta dauden alorrak aurkeztuko ditugu.

5.1.1.- Tokiko Garapena

Ermuko Tokiko Garapeneko Alorrak gauzatzen ditu lan munduratzearekin, enpresa sustapenarekin eta gaitasun pertsonal eta profesionalak hobetzearekin lotutako eginkizunak, prestakuntza-lan orientazioaren eta ildo horretan antolatutako jardueren bidez.

Hurrengo ataletan, modu zabalagoan sakonduko ditugu aipatutako hiru alderdiek ahalbidetzen dituzten aukerak.

Hemen behean ikus daitezke alor horren ardurapean dauden instalazioak.



Torretea Etxea

Bizkaia Etorbidea z/g

Telefonia:

943.17.91.51

dl@udalermua.net

“Izarra” Enpresak Prestatu eta Sustatzeko Zentroa

Urtia industrialdea z/g

Telefonia: 943.17.90.18

Faxa: 943.17.61.48

centroizarra@udalermua.net





Lanbide Hastapenerako Zentroa

Osma auzoa x7g

48260 Mallabia

Telefona: 943.17.64.22

cip@udalermua.net

Etorkizuneko "Edifizio Terziarioa"



5.1.2.- Kultura Zerbitzuak

Ermuko Udaleko Kultura Zerbitzuek eskainitako jarduerak eta/edo zerbitzuek erantzuna ematen diete aisialdiarekin eta ezagutza eta informazioarekin lotutako beharrei.



Jarduera horien helburua da udalerri aberatsago eta heterogeneoago bat lortzea.

Kultura Zerbitzu horiek aurrerago aztertuko ditugun hiru jarduera ildotan oinarrituta egituratzen dira.

- Kultura / Udal Liburutegia
- Gazteak



5.1.3.- Gizarte Zerbitzuak

Udaleko Gizarte Zerbitzuen Saila Ermuko biztanle guztiei zuzendutako zerbitzu publikoez osatzen da. Emandako zerbitzuak autonomia pertsonala lortzera zuzenduta daude, bazterkeria sozial eta pertsonala prebenituz eta ekidinez.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak hiru eremuz osatzen dira:

- Gizarte- lana.
- Gizarte-osasuna.
- Gizarte-hezkuntza.

Era berean, Sail horrek aurrera eramaten ditu berdintasunarekin eta immigrazioarekin lotutako ekintzak.

Hurrengo puntuetan, Gizarte-hezkuntza Eremuak ematen dituen zerbitzu zehatzak azalduko ditugu.



5.1.4.- Euskara

Euskara Sailak urtean zehar udalerriko biztanleei, eta, zehazki, gazteei zuzendutako jarduerak burutzen ditu.

Geroago aztertuko dugun bezala, jarduera horiek helburu dute euskararen erabilera normalizatzea eta bultzatzea, udalerriko bizilagunen egunerokoaren eremu guztietan.



5.1.5.- Udaltzaingoa

Udaltzaingoa da pertsonen segurtasuna ziurtatzen duen saila. Sail hori osatzen duten profesionalentzat pertsonak dira komunitatearen partetik garrantzitsuena.



Era berean, udalerriko zerbitzu eskaintzaren aurkezpenean ikusiko dugun bezala, beren ustez bide hezkuntza istripuak prebenitzeko elementu garrantzitsua da.

5.1.6.- Ingurumena

Gure udalerriko ingurunea zaintzeaz arduratzen den saila Ingurumena da, batez ere ingurumen-hezkuntzarekin lotutako gaiei dagokienean. Beste udal sail batzuek ere badute eskumenik kontu hauetan. Azken urteotan garapen iraunkorraren arloan lan-ildo berri bati ekin zaio, hots, Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21.



Halaber, gure udalerriaren zerbitzu-zorroan ikusiko duzunez, ingurumen-gaietako hezkuntzak duen garrantziaz ohartarazten dute, toki eta mundu mailako ingurumen-arazoak konpontzen dagoen esperientzia eskura izanik.

www.ermua.es/agenda21

5.1.7.- Udal kirol Erakundea

Ermua UKE herriko kirol sistemaren ardatz egituratzailea da, Ermuko herritar guztiek berdintasunean ohitura osasungarriak hartzeko lanean ari dena. Kalitaterik oneneko zerbitzua eskaintzen du horretarako, ondorengo ataletan azalduko diren baliabideez baliatuz.



5.2.- Hezkuntza agenteak

5.2.1.- Adingabekoak

Adingabekoak ikasten ari diren pertsona gazteak dira, eta, adinarengatik, ez dute bizitzaren ikuspegi argi eta zehatza.

Azken finean, “berotze-aldian” dauden pertsonak dira, bizitzaren egoerak egokitasunez kudeatzeko tresna eta gaitasunak lortzeari dagokionez. Horregatik, adingabekoek prozesuan zehar laguntza behar dute, bizitzarako gaitasun kritiko, enpatiko, eraikitzaile eta asertiboak barneratzen joateko, pertsona heldu eta autonomo bilakatze aldera.



5.2.2.- Familiak

Familiak dira gizarteratze agente nagusiak adingabekoen bizitzan. Hala ere, argi dago familiaren tradiziozko formula eta adingabekoak zaintzeko modua aldatzen ari dela.



Gaur egun, adingabekoen gaineko ardura beste batzuek hartu dute, hala nola, aitona-amonek, zaintzaileek... Zaintza hori besteren eskuetan lagatzean, seme-alaben hezkuntza garapenaren parte handi bat gurasoez bestelako irudien bidez gertatzen da.

5.2.3.- Ikastetxeak

Ikastetxeak, familiarekin batera, gizarteratze agente garrantzitsuenak dira. Eskola komunitateko profesionalek, funtzio akademikoak burutzeaz gain (ezagutzak transmititzea), hezkuntza informala ematen dute, ikasleek gaitasunak eskura ditzaten.

Adingabekoak ikastetxeetan hasten dira harremanetan beren kidekoekin eta familiakoak ez diren pertsonekin. Hortaz, kontuan hartu behar da matematika eta geografiaz kanpo dagoen gizarte-hezkuntza ikuspegi hori.

5.2.4.- Berritzegunea

Berritzegunea hezkuntza zentroen eskura dagoen erakundea da, eta ondoren zerrendatzen diren zereginak ditu.

Aholkularitzaren arloan

- Inguruko ikastetxeei eta irakasleei aholkularitza ematea, alderdi didaktiko orokorreari nahiz zehatzei dagokienez.
- Irakasleek curriculumean, didaktikan eta hezkuntza normalizazioan egindako ekarpenak baloratu eta zuzentzea.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatutako programetan aholkularitza ematea.
- Baliabide pedagogikoen eta material didaktikoen eskaerak kudeatu eta izapidetzea.

Prestakuntzaren arloan

- Irakasleentzako Tokiko Prestakuntza Planak diseinatu eta gauzatzea.
- Ikastetxeko prestakuntza proiektuak antolatzen laguntzea, aholkularitza ematea eta ebaluatzea.
- Komunitateko irakasleen prestakuntza planetan laguntzea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hala eskatuta.
- Irakasleek prestakuntzaren arloan egiten dituzten eskaerak bideratzea.
- Irakasleek prestatzea.
- Ikastetxeen proiektuetako beharretatik eratorritako prestakuntza kudeatzea.



Berrikuntzaren, esperimentazioaren eta ikerketaren arloan

- Ikastetxe eta irakasleei aholkularitza ematea hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleei dagokienez.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren behar, helburu eta irizpideekin bat egiten duten materialak egitea.
- Eskola eta curriculum materialak aztertu eta ebaluatzea.
- Irakasleen arteko esperientzia trukaketa bultzatzea.
- Hezkuntza sisteman antzematen diren beharren ondorio zuzena diren ekintza eta programa guztiak sustatzea.
- Hezkuntza jarduera orokorrak sustatzea, beste erakunde batzuekin lankidetzan.
- Tokiko baliabideak kudeatzea hezkuntza behar bereziei dagokienez.

5.3.- Komunitateko beste agente batzuk



Komunitatean hainbat erakunde daude eta zuzenean edo zeharka adingabekoen hezkuntza prozesuan lagun dezakete.

Erakunde horien ezagutzak eta esperientziak komunitatearen pertsonen ikuspegia aberasten du.

6.- ERMUKO UDALAREN ZERBITZU SORTA – ERREKURTSO GIDA

Ermuko Udala, etengabean hazi eta hobetu nahian, udalerriko errealitatea ezagutzen saiatzen da, komunitateko agenteekin kontaktuan egonda. Harreman horretatik hartutako ezagutzak ahalbidetzen du udalaren funtzioak agertzen diren aukera eta/edo beharrei egokitzea.

Horretarako, Udalak partaidetza eta lankidetzak ditu ezinbesteko. Horrela, sare eta ehun berriak sortu nahi ditu, aukera ekonomiko, hezitzaile eta sozialen gainean.



6.1.- Tokiko garapena

Hurrengo lerroetan aurkezten ditugu Tokiko Garapeneko Arloaren zerbitzuak.

6.1.1.- Gaitasun pertsonal eta profesionalak hobetzea

➤ Etengabeko ikasketa

Zerbitzu honek bizitza osoko ikasketa sustatzen du, ikuspegi pertsonal, sozial edo gizalegezkotik. Jarduera horri laguntzeko, tokiko eta eskualdeko prestakuntza eskaintza bildu eta mantentzen da. Horretaz gain, zerbitzuko profesionalak aholkularitza eta orientazioa ematen diete prestakuntza horren inguruan, interesa duten erabiltzaileei.

Zentzu horretan, etengabeko ahaleginak egiten dira sentsibilizazioa lortzeko, bizitza osoko ikasketaren garrantzia zabaldu dadin.

Era berean, kontuan izanik egun aro digitalean bizi garela, on-line ikasketa sustatzen da, eta bertako prestakuntza eta ikasketa eskaintza gero eta handiagoa da.



➤ Enplegu eta prestakuntzarako orientazioa.

Orientazio zerbitzuak langabetuei laguntza ematen die enplegua lortzeko bidean, jarraipen pertsonalizatua eginez. Orientazio hori indibidualizatua da eta oinarri ditu eskatzaileen gaitasun eta jarrerak.

Era berean, orientazioa enplegura motibazioarekin, lan elkartuarekin edo norbere konturako lanarekin lotutako alderdiak lantzerantz zuzendu daiteke.



Azken finean, lan munduratzera bideratutako laguntza pertsonalizatua ematean datza, enplegu bilaketa aktiboan tutoretza emanez eta enplegua ematen duten enpresen eta eskatzaileen arteko kontaktuak sortuz.

➤ ***Enplegurako prestakuntza.***

Tokiko Garapeneko Arloak prestakuntza programak eta programa mistoak antolatu eta garatzen ditu, prestakuntza eta lanez osatuak, pertsonen enplegarritasuna hobetzeko, esperientzia profesionala lortuz.

Zerbitzua ez zaie soilik langabetuei zuzentzen, baizik eta lana duten pertsonentzako prestakuntza ere antolatu eta garatzen du, birkualifikatu eta lan aukerak hobetu ditzaten.



Gaur egun, Tokiko Garapeneko Arloaren eta Gizarte Zerbitzuen arteko lankidetzak estuari esker, lana lortzeko zail duten taldeentzako prestakuntza programak antolatzen dira, hau da, Gizarte Zerbitzuetan nahiz Tokiko Garapenean ibilbide irekiak dituzten erabiltzaileak.

➤ ***Esperientzia profesionala.***

Orain arte azaldutakoaren haritik, enplegu programetara sartzeko aukera dago. Bertan, esperientzia profesionala hartu eta prestakuntza jasotzen da, eta, horrela, enplegarritasuna hobetu.



Hau da, langabetuak kontratatzen dira udalaren intereseko jardueretarako, esperientzia profesionala har dezaten.

➤ **Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak**

Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak udalaren ekarpenaz sortutako programak dira. Helburu dute DBH ikasketak arrakastaz amaitu ez dituzten eta prestakuntzaren bidez lan aukera lortu nahi duten ikasleen beharrak erantzutea. Halaber, Erdi Mailako Prestakuntza Zikloetan ikasketak jarraitzeko aukera dute DBHko titulua lortu ondoren, EPArekin lankidetzan garatutako probak eginez edo Erdi Mailako Prestakuntza Zikloetara sartzeko azterketak gaindituz.

Programa horiek 16-18 urte arteko gazteei zuzentzen zaizkie, baina salbuespenez 15 urtekoek parte har dezakete, bi modalitatetan:



a) Nahiz eta DBH 2. maila egin eta hezkuntza zikloa errepikatu, 3. mailara joateko moduan ez dauden 15 urteko ikasleak. Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programen ikasleak.

b) Gainera, programa osagarriak daude aurretik aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten 15 urteko ikasleak Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programetan sartu ahal izateko. Jatorrizko ikastetxeak Hezkuntza Sailari eskatu behar dizkio salbuespenezko plaza horiek, eta azken horrek onartu behar ditu.

Tokiko Garapenak kudeatutako programa bat denez, inguruko enprekin harreman estua du, eta horrek ikasleei lan munduan sartzen laguntzen die.

Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programek bi ikasturte irauten dituzte eta goizez ematen dira, 8:00etatik 14:00etara. Horretaz gain, azken ikasturtean enpresetan praktikak egiten dira.

Ermua Mallabia Lanbide Hastapenerako Ikastegiaren egunerokotasunean, jarduera hauek burutzen dira:

- Oinarrizko prestakuntza:

Prestakuntza orokorra da eta bi helburu ditu:

- Lanbidea garatzeko oinarrizko gaitasunak lortzea, Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programen curriculumaren arabera (nahitaezko moduluak).
- DBHko titulua lortzeko edo Erdi Mailako Prestakuntza Zikloetara sartzeko proba gainditzeko helburuak lortzea (borondatezko moduluak).



2009/2010 ikasturtean %64ak DBH titulua lortu zuen, nahiz eta lehen urtea den Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programek EPAk antolatutako proba horietan parte hartzen dutela.

- Oinarrizko lanbide prestakuntza:

Prestakuntza praktikoa da eta horretarako egokitutako tailerretan gauzatzen da. I. mailako kualifikazioa da, INCUALen arabera (Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala). Lortutako gaitasunekin I. mailako titulazioa lortzen da, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren arabera.

Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programek eskainitako lanbide prestakuntzaren artean, honako hauek ditugu:

- Ibilgailuak konpontzeko laguntzailea:
 - Mantenu lanak
 - Ibilgailuen oinarrizko konponketak
 - Osagarriak muntatzea
- Industria mekanikoko langilea:
 - Mekanizatua eta muntatzea: tornua, fresatzeko makina, CNC
 - Metrologia eta egiaztapena
 - Autocad
- Ile-apaindegi eta estetika laguntzailea:
 - Mozketa eta orrazketa teknikak
 - Estetika: manikura, pedikura, makillajea eta depilazioa
 - Masaje teknikak

- **Orientazioa**

Lanbide Hastapenerako Ikastegiaren azken urteetan, gizarte integratzailearen bidez, gizarte-hezkuntza proiektu bat garatzen ari gara, eta banaka nahiz taldeka gaitasun sozial eta pertsonalak lantzen dira 1. mailako ikasleekin eta sozial eta laboralak 2. mailako ikasleekin. Proiektu horrek helburu du bizitza heldu eta erabakitzaile baterako tresnak ematea.



- **Tutoretzak:**

Gai akademikoetatik eta ikasleen ikasketen jarraipen soiletik urruntzen diren tutoretzak garatzen dira. Espazio horietan ikasleei arreta eta orientazioa ematen zaie, arlo pertsonalean, familiarrean, taldekoan eta sozialean dituzten kezka eta ezinegonen gainean. Saio oso emankorrak dira eta ikasleek beren pentsamenduak pertsona profesional eta heldu batekin alderatu ditzakete, gizarte integratzailearekin alegia. Elkargune baliotsuak dira, eta, azkenean, gehienetan ikasleak dira saioak indibidualki egitea eskatzen dutenak.

6.1.2.- Enpresa jarduera eta kultura ekintzailea sustatzea

➤ **Kultura ekintzailea sustatzea**

Azpizerbitzu honetan, erdi mailako prestakuntza zentroetara eta unibertsitateetara bisitak egiten dira, enpresak sortzeak eskaintzen dituen aukerez eta duen garrantziaz informazioa emateko. Horrela, inguruko enpresa sustapenerako zerbitzuak eskaintzeko aukera sortzen da aldi berean.

Horrekin batera, Tokiko Garapeneko astea dago, eta, bertan, udalerriko ikasleek egindako enpresa proiektu berritzaileak saritzen dira.



➤ **Sormen tailerra.**

Artea eta teknologia bateratzeko eta 10 eta 16 urte arteko adingabekoen artean sormena pizteko asmoz, datorren ikasturtean ikastetxeetako ikasgeletan tailerrak egin ahal izango dira picocricket errobotika sortaren bidez.

Baliabidea, berez, mikroprozesadore bat da eta modulu erantsien bidez objektuak argitzen ditu, birarazten die eta soinuak igorraziti, teknologia eta arduradunak emandako jarraibideak erabiliz.



Horren moduko tailerren bitartez, hainbat ezagutza praktikan jartzen dira, hala nola, matematikak, zientziak, sormena eta ulermen sakona. Era berean, pentsamendu kritikoa, arazoen ebazpena eta informazioaren analisisa sustatzen ditu eta kideen arteko sormen lana, kreatibitatea, irudimena eta adierazpena pizten ditu.

Tailerra garatzean, programazio lengoia bat aktibatzen da, sagua erabiliz PC pantaila batean ordenatu eta konbinatu beharreko koloreetako piezaz osatutako buru-hausgarri baten antzera funtzionatzen duena.

Ildo horretatik, helburua da tresna propioak diseinatzea errobotika pedagogikoan oinarritutako eredu pedagogiko baten bidez.

➤ **Enpresak sortzea**

Tokiko Garapeneko Alorrak enpresa ekimen berriak bultzatzen ditu. Horretarako, merkatu azterketa bat egiten da, bideragarritasun planen bidez. Halaber, lantzen den enpresa proiektuari dagozkion laguntza eta diru laguntzen gaineko informazio pertsonalizatua ematen da. Horretaz gain, ahaleginak egiten dira enpresak Ekimen+Enplegu kalifikazioa lor dezan. Ez da soilik enpresak sortzearen alde lan egiten, baizik eta horien jarraipenerako jarduerak ere burutzen dira.

Tokiko Garapeneko Alorrak aukera eskaintzen du udaleko enpresa sehaskaren lokaletako bat eskuratzeko, Izarra Enpresak Prestatu eta Sustatzeko Zentroan.

6.1.3.- Lan munduratzea

➤ **Enplegurako bitartekotza.**

Bitartekotzari dagokionez, elkarrizketak egiten zaizkie langabetuei, beren datuak Lanbide enplegurako bitartekotza sistema publikoan sartzeko, eta baita ere lehenengo izen-emateak, berrikuntzak edo aurretik egindako eskaeren aldaketak egiteko.

Lan munduko beste ardatzari dagokionez, alde kontratatzaileari alegia, elkarrizketak egiten zaizkie langileak kontratatu nahi dituzten enpresei, Lanbide enplegurako bitartekotza sistema publikoan beren datuak sartzeko.



➤ **Enplegua sustatzen duen bulegoa.**



Ermuko biztanleriak eskura izan ditzake lurretako SPEE – INEM bulegoetako zerbitzuak.

6.2.- Kultura zerbitzuak

6.2.1.- Kultura

Ermuak kultura agenda zabala du, eta biztanle guztientzako jarduerak antolatzen ditu.

Udaleko instalazioei esker, abian jar daitezke hainbat jarduera, adibidez: antzerkia, zineforuma, jardunaldiak, kontzertuak, dantza ikuskizunak, erakusketak... eta baita ere Ermuko biztanleen kultura eskarei erantzuten dieten beste batzuk.

Aldi berean, kultura espazioan daude musika, pintura eta zeramika bezalako arteak sustatzen dituzten hainbat kultura erakunde.

➤ **Azpiegitura eta kultura zerbitzu jakinak:**

- **Lobiano kultur gunea**

Lobiano Kultur Gunea arte kreaziorako eta kultura sustapenerako eta hedapenerako gunea da. 4 solairuetako eraikina da, eta honako instalazio hauek ditu: 2 erakusketa gela, dimentsio ezberdinetako 2 ekitaldi areto, dantza entseguetarako gela eta antzerki entseguetarako gela, Pintura Udal Eskola jasotzen duen gunea, eta ikastaro eta tailerrak antolatzeko gunea.



Bertan, jarduera hauek egiten dira, orokorrean: antzerkia, kontzertuak, erakusketak, hizketaldiak, diaporamak, ikastaroak, tailerrak eta bilerak.

- **Pintura Udal Eskola**

Lobiano Kultur Gunean dago Pintura Udal Eskola, eta eskolak ematen dizkie 3 urtetik aurrerako pertsonari, urritik ekainera arteko ikastaroetan, 14:45etik 20:30era.



- ***“Alboka” musika eskola***



“Alboka” musika eskolan 4 urtetik aurrerako pertsonentzako musika hizkuntzako eta hainbat instrumentuetako eskolak ematen dira. Ikastaroa irailetik ekainera artekoa da, 15:00etatik 21:30era.

- ***Zeramikako Udal Eskola***

Gaur egun San Pelayo auzoan dago, eta zeramika ikastaroak ematen ditu modalitate ezberdinetan, eskulturari arreta berezia emanaz. Eskolak 16 urtetik gorako pertsonen zuzenduta daude, ikasiei nahiz arlo horretan inolako esperientziarik ez duten ikasleei. Ikastaroa urritik ekainera artekoa da, 17:00etatik 21:00etara.



- ***Ermua Antzokia***



Ermua Antzokia, otsailaren 24an inauguratu zen. Bertan herriko programazio kulturala aurrera eramaten da.

- ***Beti Ondo musika entsegurako lokalak***

Musika talde gazteek erabiltzen dituzten entsegurako lokalak dira. Lokal horiek ezin hobeki egokituta daude, eta Beti-Ondon kokatzen dira.

➤ ***Ekintzak- Hiru hileko tailerrak***

Gazteen interesekin zerikusia duten gaiak jorratzen dituzten tailerrak dira. Tailer horiek 14 urtetik gorako biztanleei zuzenduta daude.

Gainera, uztailean 13-16 urte arteko biztanleei zuzendutako tailerrak burutzen dituzte, aisialdia modu produktiboan bete dezaten.




6.2.2.- Gazteak

➤ *Aisialdirako asteburua.*

Ikasturtean zehar, aisialdiko jarduerak egiten dira, 12 eta 15 urtekoei zuzenduta, Beti-Ondo instalazioetan. Gune horiek bi aretotan banatuta daude:

-Aisialdiko gela:

Gune egokitua da eta gazteek beren eskura jarritako materialak erabil ditzakete, aisialdia modu produktiboan betetzeko. Eskainitako materialen artean hainbat mahai joko eta bideo joko daude. Monitoreek gainbegiratutako aisialdi guneak dira.



-Tailerren gela:

Noizbehinka tailer jakinak antolatzen dira, udalerriko gazteei zuzenduta. Gune horietan, hainbat ekintza gauzatzen dira arloan ezagutza duten monitoreen eskutik, hala nola, dantza, eskulanak, etab. Ekintza horietan izena ematea oso merkea da.

➤ *Jaialdiak*

Urtean zehar hainbat jaialdi egiten dira udalerrian. Jaialdi horiek, Vértigo Rock, Elktrojaia eta Urban Gazte Jaialdia bezala, asteburuetan egiten dira, eta hainbat musika motaz gozatzeko aukera ematen dute.

➤ **Gazte Informaziorako Bulegoa**



Lobiano Jauregiko Gazteen Informazio Bulegoan hainbat txartel mota izapidetu daitezke, besteak beste: ikasle txartela, aterpekide txartela... Halaber, informazioa eskatu daiteke hainbat gairi buruz, adibidez: boluntariotza, lan esparruak, udalekuak...

6.2.3.- Udal liburutegia

➤ **Gelak - Guneak**

Biztanle txikienei arreta berezia emate aldera, udal liburutegiak haurren gela antolatzen du (12 urtetik beherakoei zuzenduta), donde hay libros de lectura, organizados por colores según la edad destinataria, obras de consulta temática, revistas y un espacio con libros relacionados con la educación y el cuidado de niños/as destinado a padres/madres/educadores.



Helduentzako aukerei dagokienez, kontsultarako eta irakurketarako gela dago, sarrera askekoa, eta 108 irakurketa postu ditu. Gela horretan, liburutegiko funtsak irakurri eta kontsulta daitezke. Bertan, 2 ordenagailu daude kontsulta bibliografikoak egiteko.



Hemeroteka, eremu erosoago eta informalagoa da, 12 besaulki eta 4 mahaitxo laguntzaile ditu, eta, bertan, alboko hemerrotekako egunkariak eta aldizkariak irakur daitezke. Tematika desberdinetako aldizkarien mailegua, aipagarria da.

➤ **Materialak:**

Liburutegian 27.000 dokumentu biltzen dira euskarri ezberdinetan (liburu, cd, dvd, aldizkari eta abarretan) eta guztiz gai ezberdinetakoak. Hezkuntzaren

alorrean aipagarrienak funtzio pedagogikoaren laguntza eta garapenarekin zerikusia duten liburu, aldizkari eta ikus-entzunezkoak dira, unitate didaktikodun materialak edo ikasgela lantzeko balio dezaketen ikasgaiak biltzen dituztenak, gatazkak konpontzekoak, bullying-a prebenitzekoak eta kulturartekotasunari buruzkoak.

Gainera, Udal Liburutegiak multimedia atala du, eta bertan aurki daitezke: askotariko musika CDak (klasikoa, popa, rocka...), hainbat gairi buruzko CD-ROM edo DVDak, dokumentalak, hizkuntza ikastekoak... Irakasleentzako erabilgarriak izan daitezkeen materialak dira horiek, eskolak prestatzerakoan, eta baita ikasleentzako erabilgarriak izan daitezkeenak ere, lanak egiterakoan. Aipatzekoak dira beste hizkuntza batzuetako materialak ere (arabiarrezkoak, errumanierazkoak, ingelesezkoak...), oso erabilgarriak alfabetatzeko, eta kultura edo hizkuntza ezberdinei buruzko lanak.

➤ **Ordenagailu mailegua eta WIFI**

Bestetik, ordenagailu eramangarri mailegu eta WI-FI zerbitzua dago, ordenagailuak erabili ahal izateko liburutegian, internet eskuratzeko, lanak burutzeko edo dokumentuak inprimatzeko liburutegiaren beraren kopiagintza zerbitzuaren bidez.

Zerbitzu hori 10 urtetik gorakoek eskura dezakete, baina 10 eta 16 urte bitartekoek gurasoen baimena beharko dute baliabide horiek erabiltzeko. Izan ere, ez dago internetek jaitsi daitekeen informaziorako iragazkirik. Adin tarte horretakoek gehienez egunean ordu erdiz erabil dezakete, eta, 16 urtetik gorakoek, ordea, ordu betez.



Ikasgeletan bi xake-taula jarri dira bertako erabiltzaileek partidak jokatzeko, beti ere isiltasuna mantentzearen printzipioa errespetatuz eta ingurune ezberdin horretan kontzentrazio- eta estrategia-jolas batez gozatzeko.

➤ ***Erabiltzaileen prestakuntza – Bisita gidatuak***

Bisita gidatuak egin daitezke Udal Liburutegira, eta bisitarien adinera egokitzen dira. Hortaz, ikastetxeek bisitak egin ditzakete Udal Liburutegira, ikasleei zerbitzua gerturatzeko.

Bisitetan, liburutegiak dituen aukerak aurkeztez gain, ikasleei ordenagailuak erabiltzen erakutsiko zaie bibliografiak kontsultatzeko.



➤ ***Jarduerak***

Liburutegiak hainbat jarduera antolatzen ditu, irakurketa sustatu nahian. Ekintza hauen artean, erakusketak, ipuin kontaketak, tailerrak eta topaketak idazleekin, irakurketa kluba... aurki ditzakegu. Publiko gonbidatua jardueraren ezaugarrien arabera da. Horrela, eskola garaian dauden umeak gonbidatu litezke, jardueraren arabera.

Halaber, noizbehinka bibliografia erakusketak egiten dira, hainbat gairi buruz, irakurketa gidekin osatuta.

➤ ***Xake- goizak eta ipuinetako arratsaldeak.***



Hilabeteko lehenengo larunbatean, goizez, xake saioak egiten dira, eta biztanle guztiek har dezakete parte (aurrez jokatzeko badakite, betiere). Saio horien helburua da afizioa konpartitzeko gunea sortzea.

Larunbat arratsalde horretan 17:30ean ipuin-kontaketa saioak antolatzen dira haurrentzat, batez ere euskaraz.

Urtean zehar Bularretik Mintzora Irakurketa-kluba antolatzen da 3 eta 5 urte bitarteko seme/alabak dituzten gurasoentzat. Taldea hilean behin biltzen da, larunbat goizez, eta irakurketa konpartitzeko, adin horretarako irakurgairik proposenen berri izateko eta horretaz gozatzeko espazioa da.

Horretaz gain, Ermuko Udalak “Villa de Ermua” literatura lehiaketa antolatzen du urtero, bi modalitatetan: poesia eta literatura narrazioa. Modalitate horiek euskaraz nahiz gaztelaniaz egiten dira, eta irabazleentzako saria dute. Ikastetxeetako irakasleren bati eskatzen zaio urtero epaimahaian parte hartzeko.

➤ **Tokiko bilduma**

Tokiko bilduma hainbat euskarrietan dagoen dokumentuen funtsa da, eta Ermuko udalerriko hainbat aspektu jorratzen ditu. Bilduman jasotako agiriak liburutegiak berak bildutakoak dira, eta baita ere lagundu nahi izan duten pertsonen emandakoak.

Liburutegiko tokiko bildumak materialak web bidez kontsultatzeko aukera ematen du, dokumentuak digitalizatu baitira. Dokumentuak euskarri fisikoan kontsultatzeko, berriz, liburutegira joan behar da.

Tokiko Bildumaren bitartez informazioa jaso dezakegu gai hauen inguruan:

- Historia.
- Kultura ondarea.
- Gizarte ondarea.
- Natura ondarea.
- Ermuko bizilagunak.
- Fototeka, argazki zaharrak nahiz gaur egungoak.
- Tokiko albisteak. Udal Liburutegian Ermuari buruzko albiste guztiak eskuragarri daude, 2008. urtetik, eta baita ere “El Correo Español” egunkariaren ale guztiak, 1988. urtetik.



➤ ***Eskolako liburutegiak eta mailegu kolektiboak.***

Liburutegia, ikastetxeekin elkarlanean aritzen da horien eskola-liburutegiak jardunean jartzen eta antolatzen, aholku-ematen, trebatzen eta baliabideez hornitzen, ikastetxeen curriculum-proiektuan tresna garrantzitsu eta beharrezko baitira eskolan irakurketa dinamizatzeko eta Udal Liburutegiak antolatzen dituen jarduerak osatzeko.

Edozein kasutan ere, Udal Liburutegiak aukera eskaintzen dio ikastetxe eta ikasgela bakoitzari mailegu kolektiboak hartzeko. Txartel berezi bat behar da horretarako, baina materiala txartel indibidualarekin baino denbora gehiago edukitzeko aukera ematen du.

➤ ***Irakasleentzako laguntza.***

Liburutegiko langileek laguntza pertsonalizatua eskaintzen diete irakasleei gai zehatzei buruzko bilaketa bibliografikoak egin, materialak bildu, informazio-baliabideak kudeatu eta prozesu psiko-educatiboan laguntzeko, bai eta ere irakurketa-gidak lantzeko edo informazioaren bilaketa eta tratamenduarekin zerikusia duen edozein zalantza argitzeko.



➤ ***Informazioa bidaltzea.***

Liburutegitik antolatzen diren jarduerak udal webgunearen bitartez ematen dira ezagutzera, tokiko egunkarien bitartez, informazio kartel eta foiletoen bitartez, posta elektronikoz (eskatzen duten pertsonen edo ikastetxeen) eta hitzartutako jardueren kasuan, telefonoz edo Liburutegian bertan.

6.3.- Gizarte zerbitzuak

Jarraian, Udaleko Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Gizarte-hezkuntza zerbitzuak aurkezten dira.

6.3.1.- Familiak

Familia gakoa da adingabekoen ongizate soziala lortzeko garaian. Ildo beretik, Gizarte Zerbitzuen gizarte-hezkuntza eremuan, familiei laguntzeko zerbitzuak antolatzen ditugu, helburua bateratua lortzeko asmoz.

➤ **Familiari Arreta emateko Zerbitzua.**

Familiari Arreta emateko Zerbitzuaren helburua da adingabekoak dituzten familiak prestatzea, indartzea eta laguntzea, hezkuntza, giza eta familia zailtasunak gainditzeko.

Zerbitzu horrek asertibotasunaren kultura, hezkuntza eta tratu onak bultzatzen ditu familia nukleoan.

Lan metodoa tokiko hitzordu indibidualizatuak egitean datza, bulegoan nahiz etxebizitzan bertan.

Egoki irizten denean, adingabeentzako talde saioak egiten dira, eta jokoen bitartez giza gaitasunak lantzen dira.



Familiari Arreta emateko Zerbitzua eskuratzeko, nahitaezkoa da familiak erreferentziako gizarte langilea edukitzea aurrena, langile horrek lagunduko baitie gizarteratzeko eta gaitasunak lortzeko ibilbidean.

Ikastetxeek parte hartu dezakete Familiari Arreta emateko Zerbitzuaren jardunean, profesionalen koordinazioari esker. Koordinazio horrek adingabekoen eguneroko errealitateari sakonean ezagutzea ahalbidetuko du.

➤ **Guraso eskolak.**



Familia laguntzari lotuta, baina izaera unibertsalago eta komunitarioagoarekin, guraso eskolak daude. Eskola horiek udalerriko adingabekoen gurasoentzako saioak antolatzen dituzte, eta talde ezberdinetan banatzen dira, seme-alaben hezkuntza etaparen arabera: haur eskola, haur hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza.

Saio horien helburua da gurasoei beren seme-alaben gizarte-hezkuntza prozesua garatzen laguntzen duten tresnak igortzea. Aldi berean, topaketa, truke eta hausnarketarako gune bilakatzea du asmo, erantzun bila dabiltzan gurasoek beren zalantzak, ezinegonak eta kezkak azaltzeko aukera izan dezaten.

6.3.2.- Drogazaletasunak

Drogazaletasunen prebentzioan aurrera eramaten den lana udaleko Gizarte Zerbitzuen gizarte-hezkuntza eremuaren barruan dago. Ildo horretatik, profesionalek uste dute drogen kontsumoa fenomeno konplexua dela eta hainbat modutan eta helbururekin gure gizartean existitu dela eta egun dagoela.

Kontsumo horiek arazo larriak ekar ditzakete osasun publikoan, drogazaletasun bihur daitezke eta.

Burutzen ari den lana prebentzioan oinarritzen da, eta helburu du ahal den neurrian kontsumoa atzeratzea, murriztea eta horri buruz hausnartzea eta zalantzak agertzea. Jarduera horiek familian, eskolan eta komunitatean gauzatzen dira.

Hezkuntza oinarritzkoa ardatza izango da prebentzio eraginkorra lortzeko eta kontsumo larriak ekiditeko.



6.3.3.- Eskola-absentismoa

Hezkuntza eskubidea nahitaezkoa da bizi garen gizartearen garapen eta aurrerapenerako, eta, hein handi batean, gizarte bazterketa saihesteko. Hortaz, eskolatu gabekoak eta eskola absentismoa ez dira hezkuntza edo ikasketa arazoa soilik, baizik eta gizarte arazoa baita ere. Errealitate horiek oinarri hartuta, EUEDEL, BFA eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailaren arteko lankidetzak honako programa eratzea ahalbidetu du: “Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: eskolagabetzea eta eskolara ez agertzea ezabatzea Bizkaiko lurraldean”. Programa horrek barne hartzen ditu adingabeen hezkuntza prozesuan parte hartzen duen erakunde bakoitzaren erantzukizunak. Horrela, ikastetxeek nahiz udaleko gizarte zerbitzuek arlo horretako protokolo estrategiak ezartzen dituzte.



Protokolo horrek praktikan emaitza onak izateko, nahitaezkoa da hezkuntza agenteen arteko koordinazioa, beren ahaleginek ildo estrategiko bera jarraitu dezaten.

6.3.4.- Bizikidetza hobetzea

Lan-eremu honek prebentzio nahiz esku-hartze moduan eragiten du adingabeen arteko harreman sozialen hobekuntzan. Aplikatutako estrategiak, geroago ikusiko dugun moduan, zuzenean nahiz zeharka ezar daitezke, emaitzak lortu nahi diren gunean.

Gure esku-hartzea adingabeen artean harreman egokiak sortzean datza, pertsona asertiboak sustatuz.

Eremu jakin honetan aipa ditzakegun ezberdintasun estrategiko nagusiak honako hauek dira:

- **Sentsibilizazioa.**

Prebentzio unibertsala da, eta ikasleekin zuzenean nahiz taldean lan egiten da.

Lan metodoek oinarritzat hartuko dituzte hainbat gairen gainean hausnartzea ahalbidetzen duten dinamika jakinak, hala nola, kooperazioa, lantaldea, enpatia, komunikazioa, berrespena eta konfiantza. Izan ere, balio horiek gatazka eta indarkeria baztertzen duten bizikidetzaren oinarri sendoak dira.

- **Aholkularitza:**

Azpi-zerbitzu hau ikastetxeetako profesionalei zuzenduta dago. Zenbaitetan, ikasgeletako eguneroko lanean, irakasleek ikasleen artean hainbat jarrera eredu antzematen dituzte, hezkuntza etapa bereko gainontzeko ikasleengan ohikoak ez direnak.



Ezberdintasun horren aurrean, irakasleek agian ez dute egoera modu onean bideratzeko nahikoa informazio ezta ezaguerarik ere.

Horrelako egoerei erantzuna eman eta horien gaineko aholkuak jasotzeko psikologo komunitarioa dago, eta bere gaitasun profesionalaren bitartez, irakasleei aholkuak ematen dizkie ikasgelako kasu bakoitzean aintzat hartu beharreko elementuei buruz. Orientazio lan hori norbanakoari bakarrik dagozkion kasuei (hainbat sindrome: asperger, autismoa...) nahiz hainbat pertsonengan eman daitezkeen kasuei buruzkoak izan daiteke.

▪ **Gatazkak konpontzea.**

Ezinezkoa da irakasleek ziurtasun osoz ezagutzea zein den ikasgelan eman daitezkeen tentsioen jatorria, eta, horrelakoetan, gizarte zerbitzuetako gizarte-hezkuntza eremuarekin harremanetan jar daitezke.

Harremanetan jarri eta egoerari buruzko informazioa bildu ondoren, esku-hartzeak aurrera eraman ahal izango dira, hala behar izanez gero, ikasgelan bertan gauzatutako hainbat dinamikaren bitartez. Informazioa biltzeko teknika profesionalak erabiliko dira, egoeraren jatorriari gehiago gerturatzeko.



6.3.5.- Immigrazioa

2010/2011 kurtsoetik aurrera, Ermuko Udaleko Immigrazio Zerbitzuan oinarritzeko sentsibilizazio prozesu bat aurrera eramaten da. Prozesua bi multzotan banatuta dago, eta multzo bakoitzak bi saio ditu. Lehenengoa nortasun propioan eta norberaren beste pertsonen pertzepzioaren kontzeptuan oinarritzen da. Bigarrena, ordea, pertsonen eta kultura ezberdinetako taldeen arteko harremanen azterketan oinarritzen da.

Prozesu osoan ikuspegi sozio-afektiboa da ardatz nagusia, eta ikuspegi hori ikaslearen beraren esperientzia jasotzen du eta kontzeptu, prozedura eta jarrera orekatzen saiatzen da.

Jarduerak helburu zehatzak ditu: batetik, edozein giza talderi dagokion dibertsitatea ulertzea eta positiboki baloratzea, eta, bestetik, askotan hierarkizatuta dauden pertsona talde eta kategoriak ezartzen dituzten nortasun faktoreak kritikoki aztertzea.



Illo beretik, gizartearen irudipenetan, komunikabideen eta bestelako esparruetan ematen diren aurreiritzien eta estereotipoen eragina aztertzen da, hautemateko nahiz erlazionatzeko moduari dagokienez.

Amaitzeko, pertsonen artean noizbehinka ematen diren arazoei aurre egin eta aldatzeko estrategiak sortzea da helburua, batik bat kultura artekoa arazoei dagokienez.

Helburu horiek lortzeko metodologia oinarri ditu partaidetza eta ikasle taldea ikasketa tresnatzat hartzea, eta dinamizatzailerak hausnarketa sustatu eta bideratzen du eta pertsonen arteko harremanetarako ideiak eta inplikazioak kalifikatzen ditu.



Dinamizatzailer taldea jatorri ezberdinetako hainbat prestakuntza eta taldeen dinamizazioan esperientzia duten pertsonak osatzen dute.

Lehentasunezko hartzaileak DBH-ko 1. mailako ikasleak dira, eta, egokitzapenak egin ostean, Lehen Hezkuntzako edo LHI-ko azken mailako ikasleak.

6.3.6.- Berdintasuna

Udaleko berdintasun zerbitzua Emakumearen Etxean dago. Zerbitzu horretan hainbat eta hainbat jarduera eramaten dira aurrera, genero berdintasuna lortzeko helburuarekin.

Udalerriko III. Berdintasunerako Planak modu antolatuan eramaten ditu aurrera Ermuko jarduera guztiak.

Berdintasuna bultzatzen duten zerbitzuak edo jarduerak honako hauek dira, besteak beste:



➤ ***Prestakuntza eta jabekuntza eskola:***



Hainbat jarduera ditu, besteak beste: ikastaroak, tailerrak, irteera kulturalak, erakusketak, solasaldiak... Pertsona guztiek parte dezakete (nahiz eta batzuetan emakumeek parte hartzeko bakarrik ireki). Jarduera horiek eskuragarriago izateko, herritarrek mendeko pertsonen arreta zerbitzua dute, bateratzea errazagoa izan dadin.

➤ ***Kanpainak – Aldarrikapenak:***

Emakumeen eskubideak bultzatzen dituzten aldarrikapenak dira, herritarren sentsibilizazioaren bitartez.

➤ **Liburutegi espezializatua:**



Emakumearekin eta generoarekin zerikusia duten gaietan espezializatutako liburutegia.

➤ **Hezkidetza taldea:**

Aldizkako bilerak egiten dira Emakumearen Etxean, eta, bertan, hezkuntza zentroetako emakumezko irakasleek parte hartzen dute.

➤ **2010eko azaroaren 25eko Berdinsarea Kanpaina:**

Neska gazteentzako jarduera da, eta indarkeriaren prebentzioa jorratzen du. Neska gazteentzako proposamena denez, nahitaezkoa da ikastetxeak tartean sartzea, parte hartzea sustatzeko. Aurten, genero indarkeriaren aurkako nazioarteko egunean, honako hau izango da kanpainaren proposamena:



- **Puntu lila.**

Puntu lilaren marka-nortasuna indartzen saiatzen da on-line eta off-line guneetan.

- **“Exprésate Beldur Barik” lehiaketa.**

Emakumeenganako indarkeriaren prebentzioari buruz adierazpen modu guztiak biltzen saiatzen da, hainbat bitarteko erabilita, adibidez: argazkia, poesia, musika, antzerkia, performance, bakarriketak, erakusketak... Deialdia egingo da irailaren 8aren eta 22aren artean. Horretarako, prestakuntza tailerrak egingo dira, intereseko proiektuei edo ekimenei euskarria emateko.



- **“Beldur Barik” emakumeenganako indarkeriaren aurkako jaialdia.**

Ekitaldian hautatutako proposamenak ikusi ahal izango dira eta esperientziak elkarbanatuko dituzte.

- **Beldur Barik bira.**



Udalerrietan hautatutako lanak erakutsiko ditu, udalerri ezberdinen laguntzarekin.

6.4.- Euskara

➤ *Aisialdiko ekintzak:*

Euskara Saila bi udaleku ireki antolatzen ditu: bata ikasturtea amaitu ostekoa eta bestea Gabonetakoa. Udaleku hauetan Lehen Henkuntzako 1 mailatik DBH ko bigarren mailara arteko umeen hartzen dute parte.

Udaleku bietarako ikastetxeen laguntza izaten da, bertara egitarauak bidaltzen baitira eta horko banaketari esker egitasmo honen berri Ermuan ikasten ari diren ume guztien etxera heltzen baita.



Udaleku hauen helburua umeek oporraldian euskaraz hitz egin, ikastetxeetan eskuratutako euskara indartu eta harreman informaletan erabiltzen ohitzea da.

➤ *Trasmizio ekintzak:*

Euskara Saila umearen garapenaren hainbat garai desberdinetan gurasoengana heltzen ahalegintzen da euskararen aldeko motibazioa handitu asmoz:



- Lehen (Esadazu euskaraz): ume jaioberrien guraso guztiei adur zapia oparitzen zaie eta hurrekin euskaraz aritzeko gomendioak banatzen zaizkie, baita Udal liburutegiarekin batera prestatutako “emaiozu irakurtzen”izeneko gida.

- Bigarrena (Ku-ku! Haurrekin hitz egiten hasteko): Haur Hezkuntzako 1 zikloko 2 urteko umeei ikastetxeen bitartez irailean banatzen zaizkien hiztegitzoa eta CDa.



- Hirugarrena (Ume elebidunen gurasoentzako eskuliburua): Haur Hezkuntzako 2. Zikloko 5 urteko umeei ikastetxeen bitartez irailean banatzen zaien aholku liburuxka.



➤ **Gure agenda:**

Hilez hil, Euskara Sailak herrian euskaraz egiten diren ekitaldiak batu eta horren zabalkundea egiten du ikastetxeetan zein herriko gune estrategikoetan jartzen diren paperezko euskarrien bitartez eta Udal Web gunean berez berez duen atalaren bitartez.

➤ **Euskal produktuen katalogoa:**



Ikastetxeen bitartez merkatuan dauden euskarazko produktuen katalogoa abenduaren hasieran ume guztien artean banatzen da.

➤ **Euskal liburu eta disko azoka:**

Maiatzaren hirugarren astean lau egunez burutzen da. Hainbat ikastetxerekin “liburu ezkutua” izeneko jolasa egin dugu, honen helburua ume, gazte zein euskara ikasleak liburugintzara hurbiltzea, liburuak esju artean izaten

ohitzea, informazioa bilatzen ikastea, liburuekin jolasean aritzea, talde lana sustatzea eta harreman informaletan euskaraz erabiltzea da.

➤ **Lehiaketak:**

- Juanita Ibaibarriaga Literatur Lehiaketa Euskal Birusa Euskara Elkartearen ekimen hau aurten Euskara Sailak bere gain hartuko du. Bertan, bi modalitate daude: Lehen Hezkuntzatik DBHko bigarren mailara artekoa, ipuin lehiaketa deritzona; eta bigarren modalitatea, erreportajea esaten zaiona. Lehen mailako kategorian parte hartzen duten ikastetxeen lana aipatxekoa da oso, ikastetxean bertan egiten baita lehen galbaia.
- Olentzerori gutuna. Abenduan. Parte = hartzea saritzen da, horregatik sariak zozketaren bidez banatzen dira.
- Postal lehiaketa: orain arte Euskal Birusak kudeatzen zuen egitasmo hau Euskara Sailak hartuko du bere gain, uda garaian burutzen da.
- Piropo lehiaketa: Euskara modu sortzaile, adierazkor eta ludiko batez erabiltzea bilatzen da. Lehiaketa hau otsailean jartzen da martxan.

➤ **Euskara eguna:**

Abenduaren 3^a euskararen nazioarteko eguna da, eta, ospakizun hori aprobetxatuz, hainbat eskolek hizkuntzaren sustapenerako eta erabileraren normalizaziorako jarduerak antolatzen dituzte.



6.5.- Udaltzaingoa

Udaltzaingoaren iritziz, oso garrantzitsua da haurrek txikitatik bide-hezkuntzari buruzko oinarrizko ezagutza izatea, familiaren, eskolen edo erakunde ofizialek antolatutako kanpainen bitartez.

Haien ustez, bide-hezkuntzari buruzko edozein esku-hartzeren helburua izan behar da haurrek ezagutza, ohitura eta jarrera positiboak eskuratzea, bide publikoetan segurtasunez ibiltzeko.



Orokorrean, uste dute bide-hezkuntzari buruzko programen helburua izan behar dela zirkulazio istripuak ekiditen saiatzea eta zirkulazio arauak behar bezala betetzea. Jarduera horiek are urrunago doaz. Izan ere, benetako hezkuntza sozial eta moral baten markoan sartzen saiatzen dira, taldeari bizi kalitatea ematen laguntzeko, eta, beren eremuan, pertsona autonomoei eta helduei prestakuntza emazteko.

6.6.- Ingurumena

1993tik hona Ermuko lehen hezkuntzako ikastetxe guztiek udalaren ingurumen-hezkuntzako programan parte hartzen dute. Ermuko Udal Ingurumen Sailak ingurumen-hezkuntzako eta jasangarritasunerako hezkuntzako lantegi- eta jarduera ugari eskaintzen du ikastetxe bakoitzaren hezkuntzaren testuinguruan landu ahal izateko.

Jarduerak udalerriko errealitatearen ingurukoak izaten dira beti, eta tokikoak globalarekin duen loturari buruzkoak. Lantzen diren gaien artean, honakoak:

- *Hirigintza
- *Mugikortasun iraunkorra
- * Eskolako bidea
- * Hondakinak
- * Ura
- * Energia berriztagarriak
- * Biodibertsitatea
- * Azterkosta eta abar.



Gaiak ikastetxeen proiektuetan (ikastetxearen ikasketa proiektuan) txertatu ahal izateko eta bertan osatzeko egoki izan daitezen eran aukeratzen dira. Gainera Tokiko eta Eskolako 21 Agenda bezalako beste proiektu batzuekiko osagarritasuna ere kontutan hartzen da, bai eta ikasketa-plan berriaren eskumen berrien mailakako ezarpenarekikoa ere.

Programa hau hezkuntz komunitate osora zabaltzeko helburuarekin diseinatu da. Zentzu horretan guztiz garrantzitsua da gainerako herritarrengan, aipaturiko hezkuntz komunitatez aparte, duen eragina.

Ingurumen Sailak antolatutako jardueretan 800 neska-mutilek parte hartzen dute batezbeste eta proiektuak hainbat aintzatespen izan ditu:

➤ **Aztertuz Programa**

Eusko Jaurlaritzako “Aztertu” programak aipamen berezi batez saritu zuen 2007an.



Eusko Jaurlaritzaren IHITZA aldizkaria bezalako argitalpen profesionaletan aztertua izan da jarduera, bai eta 2002 urteko Euskadiko Ingurumen Hezkuntzako 3. Jardunaldietan.

Programa hau bat dator Ermuko Toki Agenda 21eko Ekintza Planaren 11. ildo estrategikoko zehaztapenekin.

➤ **Eskolako Agenda 21.**

Ingurumen Sailak, udalerriko ikastetxe, DEBEGESA eta Eusko Jaurlaritzako Ingurugela-CEIDArekin batera, Eskolako Agenda 21 delakoa gauzatzen eta garatzen parte hartzen du. Urtero-urtero udal osoko bilkura monografiko bat egiten da, ikasleek ikasturtean zehar egindako lanaren emaitzak azaltzeko.

6.7.- Udal kirol Erakundea

Egun, kirol eta fisiko gaietako gure esku-hartzea ondorengo ataletan egituratzen da: Eskola-kirola: UKEk “Eskola-kirola”tzat hartzen du derrigorrezko hezkuntzako eskola-umeei (beraz, 16 urtera artekoekin) eskola-orduetan zein eskola-orduetatik kanpo egiten den edozein jarduera fisiko edo kirol.

➤ ***Ingeri egiten ikasteko eskola-kanpaina:***

Lehen Hezkuntzako eskola-umeei (1. eta 6. maila bitartekoei) zuzendutako kanpaina honen bidez 6 eta 11 urte bitarteko umeei igeriketako trebetasun oinarrikoak, autonomo izateko bestekoak, eskuratzea dugu helburu, eta hezkuntza fisiko-kirolakoa eta higiene-osasunakoa suspertuko duen disziplina eta kirol anitzeko hezkuntza integralaosatzen laguntzea, ondoriozko ikaskuntza esanahiduna hobetuz.



➤ ***“Eskolako Unitate Didaktikoak” izeneko kanpaina:***



Kasu honetan gorputz-hezkuntza irakasleek eskolako unitate didaktikoak aberasteko aukera dute. UKEk kirol-ikastaro tankeran eskaintzen ditu irakasleek ikastetxean emateko zailak diren jarduerak: indoor txirrindularitza, fitness-a, yoga, defentsa pertsonala, pilatesa...

➤ ***Udal kirol instalazioak eskola-orduetan eskolako hezkuntza fisikoa emateko doan uztea.***

Baldintzak arautzen ditugu ikastetxe ezberdinek UKEn menpeko kirol espazioetan unitate didaktiko bat doan emateko.

➤ **Udalaren kirol instalazioak eskolaz kapoko orduetan eskolako hezkuntza fisikoa emateko doan uztea.**

Baldintzak arautzen ditugu ikastetxeetako guraso elkarteek beraien kirol entrenamendu eta lehiaketak UKEren menpeko kirol espazioetan doan egin ahal izateko.

➤ **Guraso elkarteekin batera “Eskola-kirolako jarduera anitzen bitartez kirol-hastapeneko programa” gauzatzeko lankidetzak-hitzarmena.**

Egun Anaitasuna Ikastolako LHlko lehen hezkuntzako 1. eta 4. maila bitarteko ia 70 ikaslek egiten dituzte eskola-orduz kanpo kirol anitzeko jarduera horiek4 taldetan banatuta. Jarduera horiek hasieran lantzen diren eredu eragileen arabera banatzen dira, hala nola:

Baloia Hanketan (futbola 5), Baloia Eskuetan (Minibasketa 3 eta 5, minieskubaloia, minierugbia, miniboleibola) Pilota–Herraminta (esku pilota, pala, zesta-punta, hockey-a, minitenisa, bádminton-a, beisbola, squash-a), Herraminta (herri kirolak), Oinarrizko Heziketa Fisikoa (atletismoa, gimnasia erritmikoa, gimnasia artistikoa, defentsa pertsonala), irristaketa (patinajea, irristailu gaineko hockey-a), Ingurune Naturala (eskalada, orientazioa), Ur Ingurunean (waterpoloa, igeriketa hegatsekin, ur-jolasak), Txirrindularitza (txirringa), Diana (cürling-a, sloegën-a, boloak), Erritmoa (aerobic-a, dantzak), Kooperazio-kreatibitatea (jolas kooperatibo eta sormenezkoak, jolas eta joko tradizionalak), Gorputz Hautematea (yoga, pilates) eta abilezia (zirkua).



➤ **Aste Santuko kirol-kanpaina :**

6 eta 12 urte bitarteko umeeentzako jolas- eta kirol-programa bat da, kirola egiteko ohitura sustatzearekin batera, gurasoek opor-garaian dituzten laneko eta etxeko betebeharrak bateratzen laguntzeko. Aste Santuko Pazko-astean jolas eta jarduera ugari eskaintzen dira, 9:30etik 13:30era bitartean.

➤ **“Mójate de Verano-Kirolaz Blai” udako kanpaina.**

Programa honen helburua 6 urtetik (Lehen Hezkuntzako 1. maila amaituta) 12ra bitarteko umeei jolas-jarduera fisikoarekin eta kirolarekin gozatzeko espazio bat eskaintzea da.



Eskolako klaseak amaitzen direnetik herriko jaien aurreko astera arte izaten dira. Bi jarduera bereizten dira: batetik “multiabentura” estelehenetik ostegunera kirol-jarduera eta jolas ugari egiteko (ostegunero txango bat izaten da Ermutik kanpora), eta bestetik igeriketako ikastaro trinkoak.

➤ **Jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko DBHko ikasleei zuzendutako kanpaina:**

12 eta 16 urte bitarteko gazteek jarduera fisikoa eta kirola egiteko herrian dauden aukerak ezagutzea da, nerabeek bizitza-ohitura osasungarriak hartu eta jarduera fisikoak eta kirolak presentzia handiagoa duen bizi-eredu bat izan ditzaten.

Ekimen-pilotu bat programatu dugu: ikastetxe bakoitzeko gela bakoitzari jarduera fisiko edo kirol bat aukeratzeko eskainiko zaio, berari egokitzen zaion astean, eta ikasle bakoitzak aukera izango du berak nahi duen jarduera aukeratzeko eta bi saio doan egiteko.



Proposatu ditugun bederatzi kiro-jarduerak gazteentzako erakargarri, moderno eta punta-puntakoenak direla uste dugu: aerobic-a, jazz fusion-a, indoor txirrindularitza, aquagym-a, pilatesa, yoga, Karibeko dantzak, patinajea eta igeriketa gidatua.



Halaber, partaidetza suspertzeko, saioetan parte hartze hutsa saritzea pentsatu dugu. Partaidetza egiaztatzeko txartel bat aktibatu du Ermuko UKEk, partaidetzaren bigarren egunaren amaieran ikasleei emateko. Ikasleak, ondoren, gorputz-hezkuntzako bere irakasle arduradunari entregatuko dio behar bezala egiaztatzeko.

7.- ONDORIOAK

Azken finean, esan bezala, informazio bileraren helburua abiapuntua izatea da, Ermuko Udalean aurrera eramandako jardueren berri izateko, eta udalerrian **Tokiko Gizarte-hezkuntza Mahaia** eraikitzen hasteko. Gizarte-hezkuntza Mahaiak beharrezko lankidetzak harremanak bideratuko ditu, ahalik eta modurik eraginkorrenean.

Uste dugu baterako lan koordinatuak bakarrik ahalbidetuko dituela emaitza onak, eta bikoiztasun eta mezu kontraesankorretatik urrundu behar dela.

Hartara, ikastetxeetako profesionalei mahaia osatzen laguntzeko eskatu nahi diegu, emaitza hobeak lortzeko udalerriko adingabeei dagokienez, eta, azken finean, egunero lan egiten dugun herrialdeari dagokionez.